

## BANDOA (B18-2022)

# UR KONTSUMOA

Berako udaletik uraren kontsumo arduratsua egitera deitzen ditugu herritarrak. Ura ezin dugu nolanahi gastatu eta aurreztu beharra dago.

Pairatzen ari garen ezohiko beroaldi eta lehortearen ondorioz, gure ur depositoak hagitz maila baxuan daude, eta hurrengo egun nahiz asteetako eguraldi aurreikuspenak, ez dute euririk iragartzen.

Hemen ur kontsumoa aurrezteko egin behar duguna:

Lorategi eta baratzeen ureztatzea murriztu.  
Kotxe eta ibilgailurik sare publikoko urarekin ez garbitu.  
Igerileku pribatuetan ur erabilera murriztu.  
Etxeetako ur kontsumoa zaindu eta murriztu.

Egoeraren larria ulertuko duzuelakoan, eskerrik asko zuen laguntzarengatik.  
Ura aurrezteko zentzuz eta arduraz joka dezagun.

Bera, 2022-07-15

SINADURA DIGITALA  
ALKATEA,  
Aitor Elexpuru Egaña